

23 Miatze-jarduera

Espainiako Gerra Zibilaren ondorioak

5. FELICITAS CACERES IZQUIERDO

A

Gerra Zibilak eragindako erbesteratze nagusia 1937ko martxoaren eta ekainaren azken aldera bitartean gertatu zen. Bizkaiko portuetatik Frantziara, Britania Handira, Errusiarra eta Belgikara abiatu ziren milaka euskal umeren erbesteratzea. Frankisten bonbardaketak gero eta gogorragoak zirenez, Eusko Jaurlaritzak, Gizarte Laguntza eta Kultura sailen bitartez, ebakutzeko eta lurralde haietan eratutako udaleku, aterpetxe eta ikastetxeetan babesteko aukera eskaini zien 30.000 umeri. Matxinatutako indarrek abertzale eta errepublikarren aurka hartutako errepresalia neurriak tarteko, eta egoeraren larritasuna ikusirik, hainbat gurasok haien seme-alabak denboraldi bat erbestean igarotzea hobetsi zuten, egoera militarren gordintasunetik eta elikagai urritasunetik urrun bizitzeko aukera izan zezaten. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako "gerrako haurren" elkarteak 30.000 ume ebakatu zituztela kalkulatu du: 4.000 Ingalaterrara, 3.000 Belgikara, 2.000 Sobietar Batasunera eta 10.000 baino gehiago Frantziara.

Mikel Errazkin, *1936ko gerrako oroitzapenak*, 2008

B

Felicitas Caceresen testigantza.



<https://youtu.be/PWr8AnK064k>

Gerrako testigantzak: Felicitas Caceres.

Sabin Egilior eta Jimi Jimenez; Eusko Jaurlaritza, Aranzadi Z.E.

C

Gerrako haurrek erbesteratzean koloketik zintzilik identifikazio-txartelak eraman ohi zituzten.



Esteban Larraiotzen txartela.

D

Frantziako Château du Loir herrian babes hartu zuten haurren eta beraien senideen irudia, 1937an. Iburguren Doktoriarena familiaren argazkia.





E

Gerrako haur euskaldunak nagusiki *Cuba* eta *La Habana* ontzietan eraman zituzten. Argazkian, *Cuba* ontziaren irteera hainbat euskal herritar Venezuelara eramateko.

Le Havre, Frantzia, 1939/06/25. Jesus Elosegiren argazkia - Aranzadi Zientzia Elkarte.

